

Amerikarra Parisen

Caja Madrid Fundazioaren Eskola Kontzertuek 2003-2004

Enkargaturiko programa

Bigarren Hezkuntzako Zikloa

- **HIRU MENDE, HIRU HIRI** -

GIDA DIDAKTIKOA

Fernando Palaciosen egin

“Gershwinen lanak ekarpen handia egin zuen musika estatubatuarrak gaindi zezan zuria eta beltzaren arteko hesia, klasikoaren eta herrikoia artekoa. Haren heriotza, tamalez lasterregi etorria, Mozarten edota Schuberten heriotzekin aldera daiteke”.

Yehudi Menuhin

AURKIBIDEA

Helburua

Kontzertuaren egitaraua

Ikus-entzunezko Kontzertua

Hiru mende, hiru hiri

Paris hor izanen dugu beti.

Gershwin kasua

Gershwinek esandakoak eta hari buruzkoak

Amerikarra Parisen

Lan honetako temak

Dibertimendua bi pianotarako

Jarduerak

Paris bilduma

Musikariak Parisen

Eman zure iritzia zerari buruz...

Summertime

Amerikarra Parisen

Amerika eta Europa

Diskografia

Zinemateka

HELBURUA

Gida Didaktika txiki honen helburua zera da, Bigarren Hezkuntzako irakasleei nahiz ikasleei tresnak eskaintzea, Kontzertu Didaktikoaren aurretik eta ondotik jarduerak antolatzeko lagungarriak: izan ere, uste izatekoa baita ongi informatutako publikoak prestasun handiagoa duela kontzertu batez gozatzeko.

Material hau fotokopiatu, moztu, zabaldu... zernahi egin daiteke. Tresna bat gehiago eskaintzea beste asmorik ez du, nornahik, inolako dogmatismorik gabe eta irudimena aurrez jarrita, eskura dezakeena.



KONTZERTUAREN EGITARAUA

GEORGE GERSHWIN

Amerikarra Parisen

RICHARD RODNEY BENNETT

Lau piezatako suitea

(Bi pianotarako dibertimendua)

- *Samba tristea*
- *Country blues*
- *Ragtime Waltz*
- *Hard Rock*

IKUS-ENTZUNEZKO KONTZERTUA

Gure kontzertu-zikloetan ohi dugunez, *Musika Abian* barruan programatzen diren ikuskizunek formatu ugartasun handia erakusten dute: kontzertu sinfoniko eta ganberakoak, musika-umorezko ikuskizunak edota ikus-entzunezko kontzertuak, besteak beste. Dagokigun zikloan, 2009-2010, honako hau da proiektzioak eta zuzeneko musika biltzeko izenburu aukeratua.

Horrekin gure asmoa ez da, ez, belarriaren kaltean begiaren arreta hobestea. Gure helburua informazioa osatzea da, ikuskizun borobilago bat antolatzea, arte ezberdinen arteko elkarrizketa gerta dadin eta guk horren emaitzaz goza dezagun.

Irudiak “in situ” eginak dira, eta musika eta arte liburuetatik, postaletatik edota afixetatik eskuratuak dira. Artelanak dira, argazkiak, marrazkiak eta komikiak.

HIRU MENDE, HIRU HIRI

Oro har, oso hiri gutxik eusten diote beren ospari urteen joanean. Badira garaiak zeinetan hiri batzuk, arrazoi politiko eta sozialengatik, historiako protagonista gisa agertzen diren (koroatzeak eta une distiratsuak), bitartean beste batzuk gerrateen ondorioz suntsituta gertatzen direlarik, hurrena berriz ere berreraikiak izateko, bestelako edertasun irizpide batzuekin. Horregatik, hiri bat era jakin batera egina zergatik den jakin nahi badugu, haren iragana ezagutzea ezinbestekoa da: New York XVIII. mendean loratzen ari zen, gaizkile eta abenturazalez beterikoa XIX.ean, XX.ean munduko hiriburu bilakatu zen, eta 2001eko irailaren 11 eta gero aldaketa nabariak pairatu ditu; Madrid ehiza-toki aparta gisa hasi zen, probintzietako hiribildu izatera pasa, eta hiri handiaren maila lortu zuen Karlos III bere alkate handiaz geroztik; eta unerik gozoena iristear du. Eta halaxe, munduko hiri interesgarrienei eta haien mende aipagarrienei buruz jarrai genezake hizketan (Erroma, London, Kairo, Pekin, Bonbai, Katmandu, Jerusalem, Tamanrasset...).

Kontzertu honetan Paris izango dugu protagonista, bere XX. mendean, arte guztia Europako hiriburuan biltzen zeneko hartan.

PARIS HOR IZANEN DUGU BETI

Casablanca filmeko esaldi famatuena da hauxe. Humphrey Bogart eta Ingrid Bergman berezi egin behar direnean, Parisen maitemindurik bizi izandako egun alai haiek oroigarri gisa gordetzea erabakitzen dute: “Paris hor izanen dugu beti”. Horixe da hiri handi horrekiko bisitari orok duen sentipena; handik alde egitean, haren oroitzapena bizi osorako lagun izango duela uste nahi izaten baitu.

Gure kontzertuan ez dugu *Andra Mari (Notre Dame)* katedrala eraiki zeneko Erdi Aroko Paris hura gogora ekarriko; ezta bertako errege barrokoen jauregiez liluratutakoa; ez eta Frantziako iraultza bizi izan zuena edota Napoleonen monumentuzko hura ere. Hiri eredugarri honetan zehar paseoan ariko gara, besterik gabe, hor baitaude herri guztiak ordezkaturak, museo ospetsuak eta etorbide zoragarriak, hor aurkituko baititugu, oparo eta bikain antolatuak, ikuskizunak, jatetxeak, kafetegiak, dendak, paseoak eta kultur jarduerak, amestu ahala. Paris izan da, zalantzarik gabe, XX. mendean zehar Europako panorama zabalean kultur giro aberatsena izan duen hiria. Bertatik iragan dira (eta dudarik gabe aurrera ere iraganen dira) artista guztiak, intelektualak, bizizaleak eta kulturarekin ase nahi duten turistak.

Munduan oso hiri gutxik dute haren “curriculum”. Asterixen agertzen zen “Luteciatik” abiatuta gaur egungo Paris ezin berriagoraino, bertan gertaturiko istorio eta jazoera guztiak gorde eta haiekin gozaten duen hiria aurki dezakegu, alegia, mundu osoa. Guztiak ados jartzen dira Paris maite dutela esateko orduan. Bakoitzauren neurri-neurrira egina dirudi. Beharbada horrexegatik, hari buruz saltzen diren liburuek era honetako izenburuak eraman ohi dituzte: *Paris mon amour, J’aime Paris...*



GERSHWIN KASUA

New Yorken jaio zen XX. mendea hastear zela. Oso gazte hil zen Kalifornian, 39 urte zituela. Gershwinnek ez zuen oso musika-kultura zabala, ez zen inondik inora garai hartako europar konpositore handien mailara iristen (Stravinsky, Ravel, Shoenberg, Bartok... benetako musika "makinak"). Erraztasun handia erakusten zuen pianoa jotzeko, bazekien inprobisatzen eta kantu eta komedia musikalak modu automatikoan konposatzen zituen. Horrek itzelezko arrakasta ekarri zion laster eta dirua barra-barra irabazi zuen (pop abestien egileen kasuan antzekoa da: arrakasta eta dirua erraz lortzen dute, bitartean konpositore sinfonikoek klaseak eman eta gogor egin behar dutelarik lan, irabaziak ateratzeko). Baina Gershwinnek konpositore "klasikoa" izan nahi zuen, historian ezaguna izan opera eta obra sinfoniko handiak sortzeagatik. Eta hori ez da erraza: publikoak eta musikariek ezin zuten benetan aintzat hartu komediak eta musikalak idazten zituen egilerik. Eta bizi zuen "hutsal" konplexu hori eraman ezinik, hondoa jota zegoen Gershwin, (zentzu afektibo eta intelektualean, jakina, diruz okitua baitzen). Beraz, Europa "zaharrera" bidaiatzea deliberatu zuen, bertako "jakintsuak" ezagutzeko asmoz. Konpositore handiak bisitatu zituen, haientzat jo zuen, klaseak eta aholkua eskatu zien. Prokofievek esan omen zion urrun iritsiko zela dolarrei eta afariei muzin eginez gero. Ibertek, berriz, zekien hori egiten jarraitzeko aholkua eman omen zion. Ravelek ezin ziola ezer berririk erakutsi ihardetsi zion. Stravinskyk, burlatiagoa, honako hau erantzun omen zion:

- "Zenbat irabazten duzu urtean zure musikarekin?"
- "Berrehun eta berrogeita hamar mila bat dolar"
- "Kasu horretan, neronek eskatu beharko nizuke aholkua zuri"

Azkenean, bere helburua lortu zuen Gershwinnek: berak konposatutako *Porgy and Best* opera, *Rapsody in Blue* eta *Kontzerta Fa-n*, eta *Amerikarra Parisen* poema sinfonikoa munduko antzoki handien errepertorioetan sartu ziren.

GERSHWINEK ESANDAKOAK ETA HARI BURUZKOAK

"Gershwinnek berak jazz deitzen dion amerikar musikaren txatal batzuk hartu eta XIX. mendeko europar musikaren ereduekin egindako konposizioei erantsi dizkie"

(Gisbert Chase)

"Kantuek oso gazterik hil behar dute, eta berehala ahaztuak izan, sobera kantatu eta jotzen direlarik ezin jasan izaten baitute haien arrakastak berak dakarkien higadura"

(Gershwin)

"Zertarako izan nahi duzu Ravel txar bat Gershwin handi bat izan bazaitezke?"

(Ravel)

"Gerora interpretatzen saiatu naizena ezagutzen ikasi nuen: amerikar herriaren arima, hain zuzen"

(Gershwin)

“George, lortu duk, musika beltzaren Abraham Lincoln haiz”

(J. R. Johnson, *Porgy and Bessen* estreinaldiaren ondoren)

“Gershwinen lanak ekarpen handia egin zuen musika estatubatuarrak gaindi zezan zuria eta beltzaren arteko hesia, klasikoaren eta herrikoiaeren artekoa. Haren heriotza, tamalez lasterregi etorria, Mozarten edota Shuberten heriotzekin aldera daiteke”.

(Yehudi Menuhin)

“Hogeita hemezortzi urte ditut, ezaguna eta aberatsa naiz, baina guztiz dohakabea. Zergatik?”

(Gershwin)

“Gershwinen biografiak zinemarako argumentu baterako elementu guztiak biltzen ditu. Izenburutzat Brooklynetik Beverly Hillsera jar geniezaioke, eta bertan kontatu arrakasta handia lortu arteko bidea, Errusiatik etorritako sendi apal batean jaio zenetik ipar Amerikako herri musikan funtsezko egile bilakatu zen arte”.

(Teresa Cascudo)

“Musika ona, musika txarra eta... Gershwinena”

(Chabrier)



AMERIKARRA PARISEN

Gershwinek Europan izan zituen bizipenetatik *Amerikarra Parisen* poema sinfonikoa sortu zen: “Lan honetan, zera irudikatu nahi nuen, Parisera bisitan joandako amerikarraren sentipenak, hirian barna dabilela, karrikako hotsei erreparatu eta Parisko giroak harrapatzen duenari. Nire asmoa ez da izan, inola ere, halako eszena jakin batzuk ekartzea.../...Entzule bakoitzak irudimenak iradokitzen dizkion pasadizoak aurkitzen ahal ditu lan honetan”.

Obra New Yorken eman zen estrainekoz 1928ko abenduaren 13an. Vincent Minellik zinemarako bertsio bat egin zuen, Gene Kelly dantzariarekin. Jatorrizko konposizioa orkestra sinfonikorako egina da. Gure kontzertuan bi pianotarako bertsio bat entzungo dugu.

The image shows a page of musical notation for the piece "AN AMERICAN IN PARIS" by George Gershwin, arranged for two pianos (four hands). The score is for Piano I and is marked "ALLEGRETTO GRAZIOSO". The tempo and mood are indicated as "mp - semplice". The score is written in 2/4 time and features a key signature of one sharp (F#). The notation includes treble and bass staves for both hands, with various musical notations such as notes, rests, and dynamics. A first ending bracket is marked with a circled "1" and a second ending bracket is marked with a circled "2". The dynamics "mf" (mezzo-forte) are indicated throughout the score.

OBRAREN TEMAK

Udaberriko goiz eder batean, amerikar turista bat Parisera iritsi eta hiria ezagutzera irten da. Mapa eskuan duela, “Champs Elysées” etorbidean barrena abiatzen da. Obran zehar hainbat bider errepikatzen den tema honek askatasun eta alaitasun sentsazioa dakarkigu, turista hori txistuka doala dirudi.



Paris handia da. Noiz edo noiz geldiu netxo bat egin beharra dago hiriak eskaintzen digun guztia barnerratzeko. Obraren bigarren tema hau da, tema nagusia.



Lanean aurrera goazela, Pariseko bihotzean bete-betean murgilduko da turista; kaleko azokak, liburu zaharrak salgai dituzten postuak, arte galeriak, antzokirako txartelen salmenta, mota guztietako dendak... Aurreko temaren garapena da berau.



Une batez gelditu beharra dago, eta Pariseko mirari guztiak ederretsi: Notre Dame katedrala, Grand Palais, Eiffel Dorrea, Operako Antzokia, Sena igarotzen duten zubiak, Louvre eta D'Orsay museoak... Auzo Latinora iritsi arte. Han, kafetegi batean esertzen da gure laguna.



Gaua heldu da. Turistak bakarrik egon nahi du eta Senaren ertzetan barna paseoan ibiltzera erretiratzen da, orkestraren bertsioan biolinak ekartzen digun tema gozo honekin.



Han, aske uzten du gogoan. Amerikarrak Amerikarekin egiten du amets, Blues erritmoan egin ere.



Herrikide batekin egin du topo. Charleston erritmo honek salatzen du.



Tema guztiak aurkeztu dira dagoeneko. Haiek pixka bat garatzea eta pieza amaitzea besterik ez da geratzen.

BI PIANOTARAKO DIBERTIMENDUA

Amerikarra *Parisen* honetaz gain, gure kontzertua *Lau piezatako Suitea (Bi pianoetarako dibertimendua)* obrarekin osatzen da. Egilea Richard Rodney Bennett da, hau ere amerikarra, eta gaur egun ipar Amerikako musikan sortzaile nabarmenetako bat. Lau pieza horietako bakoitzak erritmo ezberdina du.

Lehena *Samba triste* bat da, alegia, Brasilgo kutsua duen musika. Egia esatera, *samba* baino *bossa-nova* dirudi, hura baino estilo samurragokoa baita. *Bossa* delakoak arrakasta itzela lortu zuen 1960 urtearen inguruan; estilo urrun eta hotz samarra gerta daiteke, eta luxuzko hotelak girotzeko musika bezala erabili ohi da.

Country Blues delako estiloak bluesaren berezko eura mantentzen du, hots, ohiko hamabi konpasak eta hiru akordeak (Tonikoa, Dominantea eta Subdominantea), zein bere lekuan kokaturik:

T / T / T / T / S / S / T / T / D / S / T / S /

edo beste modu batera adierazita

I - I - I - I - IV - IV - I - I - V - IV - I - V

Ragtime izeneko jazzaren bost erroetako bat da, iparamerikar musika klasikoaren moduko bat. Idatzitako musika estiloa da, betiere baxu erraz batekin, erritmoa ikaragarri sinkopatua daramala: zurien desfileetako martxetan erabilitako baxua, beltzen erritmo “txantxazalearekin”; hortik “ragtime” izena: esan nahi baitu “denbora birrindua”. *Ragtime Waltz* hau era klasikoan idatzia da, baina salbuespen batekin: 3/4 konpasa da, baltse erritmoa alegia.

Lau Piezak mundu osoko gazteek gehien maite duten herri musika, Rocka.alegia, omenduz bukatzen dira:



JARDUERAK

Klasean kontzertu baterako ateraldia prestatzerakoan – kontzertua edozein motatakoa dela ere –, garrantzitsuena aldeaz aurretik ikasleek harekiko jarrera ona agertzea izaten da. Publikoak argiro erakutsi behar du artistekiko errespetua, isiltasunean egonez kontzertuan zehar. Ikasleak kontzertuaz gozatzeko motibatzea ere nahitaezkoa da: ezin errepikatuzko esperientzia bat izanen da, kontzertua pentsatuta dago entzuleek “beste era batera”, ohikoaz bestela, ongi pasa dezaten.

“Paris” bilduma

Ziurrenik Paris da munduan ikonografia zabalena duen hiria: margolanak, argazkiak, marrazkiak, karikaturak, pelikulak, postalak... Mota guztietako aldizkarietan agertzen da, jende famatuaren bizimodua agertzen duten aldizkarietan, bidaiarientzat egindakoetan... entziklopedia guztietan dago, testu liburuetan, arte eta historiakoetan.

- Eginahalak egin itzazu eta bilatu, zure PARIS ALBUMA osatu arte. Itsatsi eta marraztu ezazu hiriarri buruz otutzen zaizun oro. Ez ahaztu haren monumentu ezagunik batere: Eiffel Dorrea, Notre Dame katedrala, Garaipenaren Arkua, Louvre Jauregia, Sacre Coeur Basilika, Moulin Rouge, Opera... gogoratu inpresionistek ere hiria bikain pintatu zutela.

Musikariak Parisen

Parisek mundu osoko artistak erakartzen dituen indar zentrifugoa du. Picasso Parisen bihurtu zen ezaguna, eta Fallari ere, antzeko zerbait gertatu zitzaion.

- Osa ezazu historian zehar lan kontuengatik uneren batean Parisera jo zuten musikarien zerrenda bat. Hainbat izen aurreratuko dizkizut: Mozart, Chopin, Stravinsky...

Eman zure iritzia...

“Gershwinen esandakoak eta hari buruzkoak” ataleko iritzia irakurri ondoren, jabetuko zinen gure pertsonaia musika zuria eta beltzaren artean erdibidean dagoela, herri musika eta musika klasikoaren artean.

- Aukeratutako esaldien artean, zein deritzozu interesgarriena? Komenta ezazu.
- Pertsonaiari buruzko zure iritzia eman ezazu.
- Heriotza goiztiarra izandako zenbat artista ezagutzen dituzu?
- Zer esan dezakezu jazzari buruz?
- Musika zuria eta musika beltza: antzekotasunak eta aldeak
- Herri musika eta musika klasikoa: antzekotasunak eta aldeak

Summertime

Bada Gershwinen kantu bat mundu osoan ospetsu bilakatu dena: *Summertime*. Kantu honen bertsioak hain dira ugari, ezinezkoa da haietako bat bakarra gomendatzea: badira hizkuntza guztietan kantatutakoak, instrumentalak, pentsa daitezkeen erritmo guztietara egokitutakoak... Kantua baino, honezkero ereserkia da.

- Bila itzazu grabaketak eta entzun kantua hainbat aldiz, ikasi arte.
- Kanta ezazu diskoan entzutearekin batera.
- Bilatu kantuaren beste bertsio batzuk eta egin konparaketak.

Amerikarra Parisen

Formula leko lasterketetan bezala egingo dugu, obra arretaz entzun baino lehenago pistan zehar ibiliko gara, pixka bat ikasteko non dauden bihurguneak, zati zuzenak, une arriskutsuak, eta non jo dezakegun abiada biziagoan. Bihurgune, zuzen, arrisku horiek... obraren temak dira.

- Grabazio baten laguntzarekin, aurki itzazu “obraren temak” kapituluan idatzirik agertzen den tema bakoitza.
- Saia zaitez jotzen duzun musika-tresnarekin interpretatzen. Tresnarik jotzen ez baduzu, ahotsaren faltan ez zara izango, behintzat.
- Idatzi kazetaritza estiloan Gershwin Parisera iritsi zeneko hura, urteko jazoera garrantzitsuena balitz bezala.
- Musika entzutean ez al duzu antzeman autoko bozina zahar batzuen hotsik?
- Gure istorioko turistak, kabaret famatueta barna ibiltzen denean (Moulin Rouge, Follies Bergers...), Parisko aire tipiko baten konpasak entzuten ditu. *La Machicha* du izena. Aurki ezazu (1'40" inguruan dago).



Amerika eta Europa

Mundu zaharra eta mundu berria, Estatu Batuak eta Europa, bizitza ikusteko bi modu ezberdinak eta elkarren osagarriak. Lehenago edo beranduago, amerikar orori Europarako gogoia pizten zaio, nolabait bere jatorria ere baden kultura zahar eta dotoreari begiratu bat egiteko. Benetako greziar antzoki batean greziar tragedia bat ikustea bezalakorik ez dago harentzat, opera bat erromatarren hondar batean, arabiar ondare bat Espainiako hegoaldean, Mozarten etxeari bisita bat... era berean, europar ipurtarin baten guraria New Yorkeko etorbide batean paseo bat ematea da, edo Amerikako natur parke zirrargarrietako batzuk bisitatzea, jazz emanaldi bat ikustea Chicagoko klub zahar batean, edota arte garaikideko museo bati bisita egitea.

- Azter itzazu zenbait antzekotasun eta alderdi desberdin Europa eta Amerikako bizimoduen artean.
- Nola da posible Viena eta New Yorkeko Filarmonikoak urte berean sortu izana (mende bat pasatxo duela)?
- Ezberdintasunak Europako eta Amerikako zinemaren artean.

DISKOGRAFIA

Amerikarra Parisen lanaren bertsio andana dago. Leonard Bernsteinek (CBS), Antal Doratik (Philips), André Prévinek (EMI) edo Leonard Slatkinek (EMI) egindako klasikoei gaur egungo makina bat zuzendari gehitzen zaizkie. Haietako edozeinek balio du klasean entzun saioak antolatzeko.

Beste hainbeste esan daiteke *Rapsody in Blue*, *Kubatar Obertura*, *Piano eta Orkestrarako Kontzertua* eta *Porky and Bess* obrei dagokienez. Gomendagarria da, halaber, haren kantu kontaezinetatik edozein aditzea, jazz musikak eman dituen ahots handiek anitz kantatu baitituzte (Ella Fitzgerald, Sarah Vaughan, Louis Armstrong...).

ZINEMATEKA

Aipatutako *Casablanca* eta *Amerikarra Parisen* lanez gain, Paris agertoki bezala duten pelikulak kontaezinak dira. Horra adibide zenbait: *Parisko Notre Dameko Konkorduna*, *Moulin Rouge*, *Toulouse-Lautrec*, *Operako Mamua*, *Espainiarrak Parisen*, *Burdinazko Maskara*, *Hiru Mosketariak*, *Munduko goiz guztiak*, *Napoleon*, *Le Bal (Dantza)*, *Denek diote I Love You*, *Ihesa edo Garaipena*, *Edale Sainduaren kondaira*, *Paris-Texas*, *Paris Sutan...*